

Mendian laiño utsala
ez neuke gura jzan;
eguzkia bai sutan
zerupeko gingan.

ITURRIAK NEGAR

Aldapa-saietsean iturri aukala,
gaiñez lertzen dautsola pagoak itzala.

Ene laguna ta ni bertan lotu gara,
uraren jauziari oldozkor begira.

—«Zergaitik, adiskide, negarrez itoa,
iturritxo lirain onen jarioa?»

—«Ez, maite, ez dok ori biotz-min oiua;
ori dok lizar-txori poztu-nai ulua».

—«Lizarrak pozteko ez bear ulu miñik;
txoriak barriz ba-dau txinta-jo ederrik».

—«Antz-asper gabeok, siñets niri, arren,
Jainko'ren aintzaz dozak barne-otoitz guren».

Lizar-osto artetik keiñu eguzkiak...
Negar-itoin bizi, ak eta nik begiak.

AL-OKA!

Geldi dago aloka,
ondartza gorrian lo.
Oi, aloka, aloka!

Arrain-atsa dario,
ta azal zíldu ezean
urre-moltso dirdaika.

Illik ete zaitugu?
Ene!, zarboak negar,
bateltxoak txaplaka.

Barriro datoz uiñak:
ta *or*, izu-izuan,
aren soiña dardarka.

«Aloka ez dago illik
—arraintxoak diño—.
Oi, aloka, aloka!»

Ta ertzera eldurik,
ikus danak batera
aren mosu laztanka,

Asetu diranean,
maite-kanta jo dautse
ñir-ítzuli-murdika.

«Ez dago jllik aloka
—arraintxoak diño—.
Of, aloka, aloka!»

JAIOTETXEA

I

Aspaldian ez-ta, ene kabj zar!
emen natorkizu, biotza dardar.
Opari dakartzut oba eziña,
zure ibarretan gaur goizez egiña.

Atz artean xamur lauskitu eizu,
zure maastiko mats-mordo bai dozu:
eztia darion maite-bertsoa,
goizeko izar-malkoz oretutakoa.

Baiña... itxoin, bertso diñot? Egia?
Ez geiago: ene jzan guztia;
oroi ta ederra, alkar josirik,
neure lei-orioz dana igurtzirik.

Ene baserri, baserri,
nik gogoan aut sarri!

II

Oraindiño gaur be zure ikurdiak
—arri ezain-ezin ta aintza-loreak—
zut dagoz ormetan: goiz arrigarri
ta egun urdiñen gomutagarri.

Sartzean, atezar untzez beteak,
antxiñako zarren odol-eusleak;
kedar jantzi laratz aiztu eziña,
zur, abe, soillaru...; dana nik miña.

Aur-egunen ezti, oso-osorik,
zugan itsatsita daurkit oraindik.
Oi, begiok: ase joan-ederrez!
Oi, biotz: mozkortu ardotxo zarrez!

Ene laraztxo, laraztxo,
nik laster ez aiztuko!

III

Eder, aragikoi, jaiez jantzia,
nok zugan ez ezaun kuma guria?

Zu, oi!, goresteko, nok itzik naiko?
Ederren eder bai zara, maitetxo.

Zugatzak mendia baizen maitia
zaitut nik, enetxo lerden zuria.
Loreillak dirala, ortxe berotsu,
arrats sorgin batez, jaioa nozu.

Ta gaurtik gerora, len-kabi ontan
bizi nai dot, lertzen ez dan baketan:
gojz-txinparrez gori altzo barean,
izar urdiñezko ames artean.

Ene basetxe, basetxe,
biotzean aut maite!

ZURRUN • BILLOAN

Zurrun-billoan emen nago,
ez dakit zerk ikarria;
kafe-mai aurrean, utsik,
barne-ar baltzez josia.

Neskatxa baten begi-ziztak,
aragikoia ta garden,
osoz nau, arraiña urak legez,
goitik beera azterkatzen.

Jokalari tzarrak jaso dau
azken-tupiki ugarra;
laban datorkit oraindio
musika lizun maskarra.

I, mutur-estü, sabel-sakon,
ardao-bonbil maitia!